

2020KO ABENDUAREN 21EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1. AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO AZAROAREN 24KO BILKURAREN AKTA).
- 2.- 2020KO AURREKONTUAREN 4/2020 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.
- 3.- 2021EKO UDAL AURREKONTUAREN ONARPENA.
- 4.- PEREGRINO ETXEAREN OBRA AMAIERAKO AGIRIEN ETA LEHEN ERABILPENERAKO BAIMENAREN ONARPENA.
- 5.- GENERO PROZEDURETAN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA.
- 6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1. AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO AZAROAREN 24KO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2020ko azaroaren 24ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- 2020KO AURREKONTUAREN 4/2020 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	27.230,02
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.386,79
6	INBERTSIO ERREALAK	6.480,97
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		37.097,78

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	37.097,78
GUZTIRA		37.097,78

Bigarrena.- Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- 2021EKO UDAL AURREKONTUAREN ONARPENA.

2021eko aurrekontuaren espedientearen berri ematen da.

Idazkariak, onartzea proposatzen den aurrekontua osatzen duten agirien azalpena egiten du: kapitulukako laburpenak, gastu eta sarreraren partidakako aurrekontua, zorpetze eranskina, laburpen ekonomiko funtzionala, Alkatearen memoria, inbertsioen eranskina, transferentzien eranskina, dirulaguntzak arautzeko prozedura, aurrekontua gauzatzeko udal araua, ekonomi eta finantza txostena, onarpen prozedura txostena, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda (atal honetan, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko 5/2015 Legeak bere hirugarren xedapen iragankorrean adierazitakoaren arabera, eta gaikuntza nazionalerako toki-administratzaileko funtzionarioen araubidea jasotzen duen 128/2018 Errege Dekretuaren arabera, langilegoaren taldeak egokitu dira bertan jasotako baliokidetasunak jasoz).

Lanpostuei dagokionez, Alkateak administrari laguntzaile eta liburuzain eta gazte plangintza lanak burutzen dituzten bi langileen egoera azaltzen du. Lanpostuak (liburuzain lanpostuaren lanaldia izan ezik) lanpostuen zerrendan jaso gabe dauela azaltzen du, eta idazkariak horiek jasotzeko prozeduraren azalpenak ematen ditu. Ildo honetan ere, gizarte laguntzailearen lanpostua hutsik jasotzen delarik, honen zergatiaren berri eta horien finkotasuna gauzatzeko aukera eta izapideak adierazten dira (langileak bere egoera epaitegian bideratzea; edo lanpostuen deialdi publikoa bideratzea).

Era berean aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostenaren berri ematen da.

Aurrekontu-espedientearen jasotakoaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- 2021eko Udaleko Aurrekontu Orokorreko jarraian azaltzen den gastu eta sarreraren kapitulukako laburpena hasiera batez onartzea:

Gastuak		
Kapitulua	Izena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	406.755,21
2	Ondasun arrunten erosketak	1.182.871,88
3	Finantza gastuak	-
4	Transferentzia arruntak	302.585,03
6	Inbertsio errealak	160.575,49
7	Kapital transferentziak	-
8	Aktibo finantzarioak	-
9	Pasibo finantzarioak	-
TOTAL		2.052.787,61

Sarrerak

Kapitulua	Izenak	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	365.791,82
2	Zeharkako Zergak	13.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	328.002,54
4	Transferentzia arruntak	1.297.949,84
5	Ondarezko sarrerak	19.065,60
6	Inbertsio errealak besterenganatzea	-
7	Kapital transferentziak	29.977,81
8	Actibo finantzarioak	-
9	Pasibo finantzarioak	-
TOTAL		2.052.787,61

Bigarrena.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Hirugarrena.- Aurrekontuaren onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-Oholean 15 egunez jendurrean jarri, epe horretan interesatuek aztertu eta ondo deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendurrean egoteko epea inolako erreklamazio edo oharpen jasotze gabe iragango balitz, akordio hau behin-betikoa bihurtuko litzateke.

Laugarrena.- Behar den garaian, aurrekontuaren kopia ziurtatua Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara igorri.

2021. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.

2021. urterako Udal honetako plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren berri ematen da.

Adierazitakoa ikusirik, eta 2021ko Plantila Organikoan eta Lanpostuen Zerrendan jasotakoa aztertu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Udal honetako 2021eko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda jarraian adierazten den bezala onartzea:

2021eko plantila organikoa

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	LANPOSTU KOPURUA/ NÚMERO DE PUESTOS	TALDEA/ GRUPO	EGOERA/ SITUACIÓN
IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA/ FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN NACIONAL Idazkari-Kontuhartzailetzako azpieskala/ Subescala de Secretarios-Interventores			
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/ SECRETARIO/A-INTERVENTOR/A	1	A1-A2	H-V
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Administrarien Azpieskala/ Subescala Administrativa			
BALIABIDE PUBLIKO, PERTSONALA ETA KONTUEN ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN DE LOS RECURSOS PÚBLICOS, PERSONAL Y CUENTAS	1	C1	J-P

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	Lanpostu kopurua/ Número de puestos	Lanbide maila/ Categoría profesional	Taldea / Grupo	Egoera/ Situación
Euskara eta Kultura teknikaria / Técnico/a de Euskara y Cultura	1	2	A2	F
Zeregin Anitzetako Ofiziala/ Oficial de cometidos múltiples	1	9	C2	F
Gizarte Laguntzailea/ Asistente/a Social	1	2	A2	H-V
Liburuzaina/ Bibliotecario/a	1	7	C1	H-V

EGOERA-SITUACIÓN
 J-P: Jabea-Propiedad
 F: Finkoa -Fijo
 H-V: Hutsik-Vacante

2021eko lanpostuen zerrenda:

2021. URTERAKO UDAL HONETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominac.	Lanpostu kopurua	Taldea/Grupo	Lanpostu mota Tipo de puesto	Hornikuntza era Formalde	EUF/FALEBA maila Nivel ARCEPAFF	Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias		Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño						Berriazko meztimendurak
							Dest. Osag. Maila. Dekretu Nivel	Osagarri espezifiko Complemento especifico			Adskripzioa Adscripción			Hizkuntz eskakiz. Perfil lingüístico		Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida	
											Taldea edo eskala	Azpieskala Subescala	Klasea Clase	Koefiziente Coeficiente	Derriortasun data Fecha de		
KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATURIKO LANPOSTUAK																	
1	Idazkari- Kontuhartzailea	1	A1- A2	S	C	19	24	21.252,48	100	I-K	GN	IK	3	4	96-10- 30	Z/PZS/E E. Dp	(1)
2	Baliabide publiko, personala eta kontuen administraria	1	C1	N	C	13	18	17.153,44	100	I-K	AO	AA	-	3	17-05- 09	GB	
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA																	
1	Secretario- Interventor	1	A1- A2	S	C	19	24	21.252,48	100	S-I	HN	SI	3	4	30-10- 96	Dp.D/C PS/EE	(2)
2	Administrativo/ a de gestión de los recursos públicos, personal y cuentas	1	C1	N	C	13	18	17.153,44	100	SI	AG	AA	-	3	09-05- 17	BS	

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominación	Lanpostu kop. urua Nº de puestos	Taldea/Grupo	Kategoria profesionala Categoría profesional	EUFAL EBA maila Nivel ARCEPAF	Osagarri maila Compl. destino	Osag. espezifikoa Complemento específico.	Dedikazioa Dedicación	D.B.O. C.D.F.	A.B.O.P. C.P.T.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak equisitos exigidos para su desempeño		
											Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico	Titulazioa titulazioa	Titulazioa titulazioa
LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK													
1	Euskara eta Kultura. Tek.	1	A2	2	16	21	17.844,74	100	-		4 T.G.	94-12-31	D
2	Zeregin anitzetako ofiziala	1	C2	9	10	15	15.534,68	100	%25	%2	2	00-12-31	EG/B1 GB
3	Gizarte laguntzailea	1	A2	2	14	19	6.694,04	43,99	-		3	01-01-01	Dp. T.S.
4	Liburuzaina	1	C1	7	9	14	3.993,50	27,76			3	02-05-06	GB
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL													
1	Técnico de Euskera y Cultura	1	A2	2	16	21	17.844,74	100	-		4.T.P	31-12-94	D
2	Oficial de Cometidos Múltiples	1	C2	9	10	15	15.534,68	100	%25	%2	2	31-12-00	GE/CC B1
3	Asistente Social	1	A2	2	14	19	6.694,04	43,99	-		3	01-01-01	G.L. Dp.
4	Bibliotecario/a	1	C1	7	9	14	3.993,50	27,76			3	02-05-06	BS

(1)
- Berariazko merezimenduak.

1.- Eginiko zerbitzuak:

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkartearen barruan: 0,020 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpo: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Herri-Administrazioan Administrazio Orokorreko Teknikari gisa edo antzeko lanposturen batean eginiko zerbitzuak: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,06 puntu gehienez).

2.- Prestakuntza-ikastaroak:

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-kontuhartzaitzarekin zerikusia duten gaietarako buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu (0,30 puntu gehienez).

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-administrazioarekin zerikusia duen beste edozein gaietarako buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,05 puntu (0,20 puntu gehienez).

3.- Titulazioak:

* Zuzenbideko edo Ekonomi eta Enpresa Zientzietako dokortze titulua izatea: 0,5 puntu.

- Berariazko merezimenduak egiaztatze modua:

* Eginiko zerbitzuak egin direneko udal-korporazioako idazkariak emandako jatorrizko ziurtapen bidez egiaztatuko dira.

* Ikastaroak, kasuak kasu, HAAEko edo eskola ofizialeko funtzionarioak edo agintariak emandako jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.

* Unibertsitate-titulua izatea, behar bezala konpultsatutako jatorrizko agirien bidez.

- *Méritos específicos:*

1.- Servicios prestados.

* En la subescala, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco: 0,020 puntos por año, hasta un máximo de 0,22 puntos.

* En la subescala, fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco: 0,01 puntos por año, hasta un máximo de 0,22 puntos.

* Servicios prestados en la Administración Pública como Técnico de Administración General o similar: 0,01 puntos por año, con un máximo de 0,06 puntos.

2.- Cursos y Diplomas.

* Por cada curso de aprovechamiento igual o superior a 40 horas organizado por el IVAP u otra entidad oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sobre materias relacionadas con la Intervención Municipal: 0,10 puntos, con un máximo de 0,30 puntos.

* Por cada curso de duración igual o superior a 40 horas organizado por el IVAP u otra entidad oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sobre cualquier otro tema relacionado con la Administración Municipal: 0,05 puntos, con un máximo de 0,20 puntos.

3.- Titulaciones.

* Doctorado en Derecho o en Ciencias Económicas y Empresariales: 0,5 puntos.

- *Forma de acreditar los méritos específicos:*

* Los servicios prestados se acreditarán mediante certificaciones originales expedidas por el Secretario de la Corporación municipal en la que se hayan prestado.

* La acreditación de los cursos deberá realizarse mediante la aportación de certificaciones originales expedidas por el funcionario o autoridad del IVAP o Escuela Oficial, según el caso.

* La posesión de los títulos universitarios, mediante copia de los documentos, originales, debidamente compulsada.

4.- ERROMES-ETXEAREN OBRA AMAIERAKO AGIRIEN ETA LEHEN ERABILPENERAKO BAIMENAREN ONARPENA.

Zegamako Donejakue Bideko Erromes-Etxearen lanak egitea kontratatzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia ikusirik eta honen arabera, Kontratazio Mahaiak, 2019ko ekainaren 11n, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua esleitzea, aurrez, administrazio baldintzen pleguko 17. klausulan adierazitakoaren arabera, ezarritako agiriak aurkeztu beharko zirelarik.

Horiek aurkeztu ondoren, Alkateak, 2019ko uztailaren 1eko Erabakiaren bidez (2019ko uztailaren 24ko udalbatzar-bilkuran berrestua), kontratua honakoaren arabera esleitzea erabaki zuen:

- 1 atala.- Obra gehigarriak.

MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428)

Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabete eta erdiko egite epea).

Bermearen zenbatekoa: 6.492,12 euro.

- 2 atala.- Egitura eta gainazala:

EGOIN S.A. (IFK.A-48427074)

Prezioa: 82.975,60 euro gehi 17.424,87 euro BEZ (%21), guztira 100.400,47 euro.

Proposamenean eta pleguan ezarritako baldintzak (hobekuntzak eta 3 hilabeteko egite epea).

Bermearen zenbatekoa: 4.148,78 euro.

Lanak amaitu ondoren, Udal honetan dagozkion fakturak aurkeztu dira eta horiek onartu. Zentzu honetan, aurkeztutako obra amaierako likidazioaren arabera, 23.992,79 euroko (BEZ barne) aurrekontu gehigarria eman da, hau justifikatuta gelditu delarik.

Aurrekoaren arabera, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak idatzita, Udal honetan lanaren amaierako agiriak aurkeztu dira (obra zuzendaritzaren amaierako egiaztagiria; egiaztagiriaren laburpena; eraikinen eraginkortasun energetikoaren egiaztagiria; kontrolen erlazioa eta planoak). Era berean, Passive House egiaztagiria jaso da.

Aurkeztutako agirien onarpena bideragarria izanik, eta eraikinaren obra berriaren eskritura bideratzeko beharrezkoa izanik.

Ezargarria den araudian jasotakoa ikusirik, eta konkretuki, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak bere 207.1.r) artikuluan adierazitakoaren arabera, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Aurkeztutako obra amaierako agiriak onartzea, eta honen arabera, San Bartolome 14an kokatzen den Zegamako Donejakue Bideko Erromes-Etxearen lehen erabilpena onartzea, adierazitako lana bideratu nahi den erabilpenarako egokia delarik.

Egintza honetan ere, eta dagozkion ondorioetarako, eraikinaren izena Zegamako Donejakue Bideko Erromes-Etxea izango dela onartzen da.

Bigarrena.- Doakieneki erabaki hau jakinaraztea.

5.- GENERO PROZEDURETAN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA.

Alkateak jakinarazten du, Zegamako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoak bultzatzen duen *Administrazio Prozeduretan Genero*

Ikuspegia Txertatzeko 2020-2022 Programan parte hartzeko izapideak bideratu dituela.

Ondorio horietarako, programan parte hartzeko konpromisioa adierazteko eskaera egin da.

Konpromisoaren xedeak ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- Emakume eta Gizonen berdintasunerako bidean, Udal honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera eta *Generoa prozeduretan* **programan eta lan marko horretan aztertuko diren administrazio prozeduretan berdintasunerako moldaketa praktikoak garatzeko konpromisioa** hartzen duela.
- Parte hartze eta moldaketa praktiko horien garapen egokia burutu eta jarraipena bermatzeko, Udalak **beharrezkoak diren bitartekoak** jarriko dituela.
- Generoa administrazio prozeduretan Programarekin elkarlanean aritzeko IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA lanpostua duen udal teknikaria (Igor Alustiza San Vicente) lanpostua duen udal teknikaria **izendatzen dituela** eta lan honek suposatzen duen dedikazioa eskaintzeko neurriak hartuko dituela.
- Udalak Berdinbideanetik antolatzen diren **bilera, lan saio eta mintegietan** izendatutako ordezkari teknikoan – edo/eta landuko den gaiaren arabera, horren arduradun teknikoan – **parte hartzea** ahalbidetuko duela.
- Udalak programa honetan parte hartzeko finkatutako **konpromisoak ezagutzen eta onartzen** dituela.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 011/01120 erabakia, azaroaren 25ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiari, jasotze topografikoa egiteko lanaren hurrengo fasea gauzatzeko zuzeneko diru-laguntza eskaera bideratuz.
- 012/01120 erabakia, azaroaren 25ekoa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 013/01120 erabakia, azaroaren 25ekoa, Plazape okindegian “eramateko kafea” zerbitzua emateko baimena emanez.
- 014/01120 erabakia, azaroaren 27koa, 32 zenbakidun fakturen erlazioa (azaroa 2), guztira 42.323,22 euro, onartuz.
- 015/01120 erabakia, azaroaren 30ekoa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanez.
- 01/01220 erabakia, abenduaren 3koa, Zegamako eguneko zentroko gizarte zerbitzuen handitzea eta erreforma lanak egiteko kontratua Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitzuz.
- 02/01220 erabakia, abenduaren 4koa, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kobrantzan aurkeztutako erreklamazioa onartuz.
- 03/01220 erabakia, abenduaren 9koa, Aizkorri guraso elkarteak ludoteka erabiltzeko egindako eskaera onartuz.
- 04/01220 erabakia, abenduaren 11koa, Aizkorri guraso elkarteak gimnasioa erabiltzeko egindako eskaera onartuz (abenduaren 9koa egokituz).

- 05/01220 erabakia, abenduaren 15ekoa, etxebizitzan lanak egiteko baimena emanaz.

7.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), egunotan frontoiko kristal bat apurtu eta horren egileak harrapatu zituztela jakinik, gertaerari buruz galdetzen du. Alkateak adierazten du, gertaera horiek generazioz-generazio ematen direla eta ohiko izaerarekin mutikoak izaten direla. Zentzu honetan azkenaldian burutu diren kalte eta gertaerak azaltzen ditu (Peregrino etxeko kristala; zabor edukinontzia San Bartolometik behera botatzea; patioan itxita dagoenean sartu; frontoiko langileei adarra jo...). Honela, azken egunotan frontoiko kristal bat baloiarekin puskatu ondoren, 10 lagun harrapatu zituzten eta kristalaren zenbatekoa horien artean ordainduko dutela adostu dela adierazten da. Bilkurakideak, San Bartolometik behera zabor edukinontzia botatzearen arriskua azaltzen dute, eta hau galerazteko zein neurri hartu daitekeen eztabaidatzen dute (pibote gehiago jarri, gurpilak kendu...). Era berean, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak galdetzen du esan zaiola haur horiei argazkiren bat egin zitzaiela. Alkatea dio ez zitzaiela egin. Azkenik, Alkateak adierazten du gurasoen aldetik jarrera desberdinak ikusi dituela, batzuek, haurrak nolabait zigortzekoaren aldekoak eta beste batzuk, horiek babestuz.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak adierazten du, aurreko egun batean, autokarabana bat San Bartolomera doan bide horretatik igotzen hasi zela San Bartolome auzora, antza denez, GPSak hortik bidaltzen duelako. Honela, debeku kartelen bat jartzea proposatzen du.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021 ekok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2021.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO